



BARNAVAL 2019

BILBOKO ARATUSTEAK

BARNAVAL – Bilboko **ostalaritza lokalen Mozorro eta girotze XXVII. Lehiaketa**



Agur beroa zuri, Hiriko ostalariari!

Aurtengo 2019ko Aratusteak laster direla eta, **BARNAVAL**ean parte har dezazun dei egiten dizugu. Dakizunez, ostalaritzako lokalen mozorro eta girotze lehiaketa dugu hau.

Barnavala antolatzen dugunok, azken 27 urteetan ekimen hau antolatzen ari gara jendeari zerbait berezia eskaintzeko asmoz. Denok dakigulako zuen lokalak apaindu eta mozorroak jartzen badituzue, jendeari askoz erakargarriagoak egiten zaizkiela eta era berean, jai giroaz gozatzeko aukera ematen diegula.

Aurten, iaz egin genuen bezala, hainbat ekintza antolatu ditugu: komunikabideetan aurretik aurkeztu, parte hartuko duten lokalen zerrendaren banaketa handia eta honez gain, gure web orrian ere eskegiko dugu www.barnaval.com (zuen orrialdia duzuenok link-a jar dezakezue), Facebook, Twitter eta Instagram bezalako sare sozialetan hedapena eta ohitura dugun bezala, sari banaketarako zeremonia non garaikurrak eta aipamenak bananduko ditugun. Denok dakigu parte hartzen dutenentzat sustapen itzela izaten dela.

Horretarako, zure laguntza eta harpidea behar dugu. Aukera badago, hobe da **otsailaren 26a, baino lehen egitea** (zerrenden banaketa denboraz egin ahal izateko). Era horretan, martxoaren 1 eta 2an (ostiralean eta larunbatean) gure epaimahai eroko pertsonaiek, bertan zuen jai-ahalegina baloratzeko aukera izango dute.

Aratusteetan Bilbok argia har dezan! Egizu zurea **BARNAVALA**! Merezi du!

LEHIAKETAREN ARAUAK

Helburua: Aratusteak direla eta, ostalaritza lokalak giroan sartu. Beste askoren artean ezaugarri hauek hartuko dira kontuan: mozorroak, dekorazioa eta giroa.

Harpidea: 94 425 57 66 telefonora deituz edo **barnavalbilbao@gmail.com** helbidera datuok bidaliz: lokala, harremanetarako pertsona eta telefonoa, eta **30 €** sartuz (27 urtetan prezioa mantendua da) kontu honetan LABORAL KUTXA: **3035 0083 2908 3007 1827** (bertan adierazi nork egiten duen ordainketa).

Datak: Martxoaren 1a eta 2a

Sariak, garaikurrak eta diplomak egongo dira.

Harremanetarako telefonoa: 94 425 57 66 – 669 02 13 61

Facebook: Barnaval, La Ria del Ocio. Instagram: lariadelocio. Página web: La Ria del Ocio.

Jai agurra,

Barnavalaren antolatzaileak